




Luisa pilotazalea da eta pilotariak animatzen ari da.
Luisa es **aficionada a la pelota**, y está animando a las **pelotaris**.

AURRIZKIAK ETA ATZIZKIAK LOS PREFIJOS Y SUFIJOS

Aurrizkiak eta atzizkiak hitz berriak sortzeko erabiltzen dira; horrela, esanahi osoa duten hitzei aurrizkiak edo atzizkiak lotuta, beste esanahi bat duten hitzak sortzen ditugu: **ezberdina**, **kontraesana**, **mendizalea**, **beldurgarria**...

Los prefijos y sufijos se utilizan para formar nuevas palabras; así, uniéndolos a la raíz de palabras con significado propio, formamos nuevas palabras con otro significado: **diferente**, **contradicción**, **aficionado a la montaña**, **terrible**...

A **Aurrizkiak:** aurre-, ez-, des-, kontra- eta bir-/ber-
Los prefijos

B **Atzizkiak:** -txo, -zale, -dun, -gailu, -aro...
Los sufijos

Ezagutzen ditugun hitzei aurrizkiak edo atzizkiak jarrita, beste esanahi bat duten hitzak sortzen ditugu.

Miren eta Idoia oso **ezberdinak** dira.
Miren e Idoia son muy **diferentes**.



Leire haurdun dago.
Leire está **embarazada**.



A Aurrizkiak: *aurre-, ez-, des-, kontra, bir-/ber-* Los prefijos



Jateko ohitura **desegokiak** aldatuko ditu.
Va a cambiar los hábitos **inadecuados** de alimentación.

- Bihartik aurrera elikadura zaintzen hasiko naiz pixka bat argaltzeko.
- Medikuarekin hitz egin duzu?
- Bai, eta jateko ohitura **desegokiak** aldatzen baditut, hilabetean bi kilo edo galduko ditudala **aurreikusi** du.
- Animo, bada!



› Aurrizkiak hitzen **aurrean** jartzen dira, horiei **lotuta**.

Legatza **desizoztu** dut afaltzeko. Etxea konpontzeko **aurrekontua** eskatu dute.
He descongelado merluza para cenar. Han pedido presupuesto para arreglar la casa.

› Hitz bati **aurrizkia** jartzen diogunean sortzen den hitzak **beste esanahi bat** dauka.

egin: *hacer* › **desegin**: *deshacer* pozoia: *veneno* › **kontrapozoia**: *antídoto*

› Hona hemen aurrizki batzuk:

aurre-

- Aurretik egindakoa adierazten du.
aurreiritzia: *prejuicio*
aurreikusi: *prever*

kontra-

- Kontrakoa adierazten du.
kontraesana: *contradicción*
kontrajarri: *oponer*

bir-/ber-

- Errepikapena adierazten du.
berregin: *rehacer*
birziklatu: *reciclar*

des-

- Kontrakoa edo gabezia adierazten du.
desberdina*: *diferente*
desabantaila: *desventaja*

ez-

- Kontrakoa edo ukapena adierazten du.
ezberdina*: *diferente*
ezgaitasun: *incapacidad*

* Desberdina/ezberdina: Biek esanahi bera dute eta berdin erabiltzen dira.

Iratzargailuak jo du.
Ha sonado el despertador.



- Etorriko zara biharko mendi-ibilaldira?
—Jakina! herriko mendizale guztiok joango gara.
—Goizeko zazpitan egon behar dugu plazan. Zer ordutan jarriko dut iratzargailua?
—Jarri seietan.
—Ados.



► Atzizkiak hitzen atzean jartzen dira, horiei lotuta.

Ordenagailu eramangarria erosi dut.
Me he comprado un ordenador portátil.

Pedro oso antzerkizalea da.
Pedro es muy aficionado al teatro.

► Hitz bati atzizkia jartzean, **beste esanahi** bat duen hitza sortzen dugu, eta, horrez gain, **gramatika-kategoria desberdina** izan dezake; adibidez, izenari atzizkia lotuta, aditzondo bihur daiteke; aditzari atzizkia lotuta, izen bihur daiteke eta abar.

barre (izena) >	+ -garri >	barregarri (adjektiboa)
risa (nombre)		gracioso, -a (adjetivo)
inprimatu (aditza)	+ -gailu >	inprimagailu (izena)
imprimir (verbo)		impresora (nombre)

► Hauek dira atzizki batzuen esanahiak:

-txo/-txu

- Txikia dela adierazten du.
mutil**txo**: *chavalito*
katu**txu**: *gatito, -a*

-zale

- Zaletasuna duena, gustuko duena. Kasu horretan, atzizki horren bidez, izenei lotuta, adjektiboak sortzen dira.
egiaz**zale**: *amante de la verdad*
txakur**zale**: *amante de los perros*
- Saltzen edo banatzen duena. Kasu horretan, izenei lotuta beste izen batzuk sortzen dira.
ogiz**zale**: *que vende o reparte pan*
esnez**zale**: *que vende o reparte leche*
- Batzuetan, **-zale** atzizkia jarrita, hitz batek aurreko bi esanahiak izan ditzake. Horrelakoetan, testuinguruak lagunduko digu zer adierazten duen argitzen.
Mikel oso **esnezalea** da.
(esnea gustatzen zaio/adjektiboa)
Esnezalea etorri da etxera.
(esnea banatzen duena/izena)

-dun/-tun

- Zerbait daukana adierazten du. Izenei lotuta adjektiboak edo beste izen batzuk sortzen dira.
bizard**un**: *barbudo*
euskald**un**: *vascoparlante*

-gailu/-kailu

- Zertarako tresna adierazten du. Aditzei lotuta, izenak sortzen dira
inprimag**ailu**: *impresora*
grapag**ailu**: *grapadora*

-aro

- Garaia, zikloa adierazten du. Izenei lotuta, beste izen batzuk sortzen dira.
ikast**aro**: *cursillo, periodo de formación*
haurtz**aro**: *niñez*

-tegi

- Tokia adierazten du.
euskal**tegi**: *centro donde se enseña euskera*
kirol**tegi**: *polideportivo*

-zain

- Zaintzen duena adierazten du.
umezain: niñero, -a
artzain: pastor, -a

-gile /-gin

- Egiten duena adierazten du.
zinemagile: cineasta
harakin: carnicero, -a

-le

- Egiten duena adierazten du.
ikusle: espectador, -a
entzule: oyente

-tzaile

- Egiten duena adierazten du.
erretzaile: fumador, -a
sortzaile: creador, -a

-ari/-lari/-tari/-kari

- Landidea edo jarduera adierazten du.
sukaldari: cocinero, -a
pilotari: jugador, -a de pelota

-ti/-di

- Izaera edo joera adierazten du. izenei lotuta, adjektiboak sortzen dira.
beldurti: miedoso, -a
lotsati: vergonzoso, -a
- Landare edo gauzen multzoa adierazten du.
pagadi: hayedo
zumardi: alameda

-garri

- Izatea merezi duela edo posible dela adierazten du. Aditzei lotuta, adjektiboak sortzen dira.
aspergarri: aburrido, -a; que produce aburrimiento
ikusgarri: digno, -a de ver

-tasun

- Izen abstraktuak sortzeko erabiltzen da.
isiltasun: silencio
alaitasun: alegría

-keria

- Adjektiboei lotzen zaie, eta sortzen diren izenek kutsu peioratiboa izango dute beti.
tontakeria: tontería
alferkeria: vagancia, pereza

Adi!

- keria** atzizkiak **a itsatsia** dauka, beraz, ezin zaio bukaerako **a** hori inoiz kendu.

- ✗ Zer ~~tontakeri~~ tontak**eria** esan duzun!
- ✗ ~~Astakeri~~ Astak**eria** handia egin dute herrian.

22. or. > Izen eratorriak

1. Osatu elkarrizketa, hitz egokia aukeratuz.

dibertigarria
zinemagile
herritxo
haurtzaroa
ikusle
aspergarria

- Atzo Agirre (1) **zinemagile** ospetsuaren pelikula ikusi nuen; niri (2) egin zitzaidan.
- Benetan? Ba telebistan esan zuten (3) asko izan dituela eta oso (4) dela.
- (5) txiki batean kokatuta dago, eta, hasieran, gustatu egin zait, (6) ekarri dit gogora, baina luzeegia egin zait.

2. Lotu ezkerreko *aurrizki* eta *hitz* bakoitza eskuineko zutabeko dagokion *hitzarekin* edo *atzizkiarekin*, eta esaldi bakoitzak zer definitzen duen jakingo duzu. Ondoren, idatzi hitza definizio bakoitzaren ondoan.

futbol	-garria
bibote	-gilea
des-	-duna
antzerki	pozoia
beldur	egokia
kontra-	-zalea

1. Antzerkiak idazten edo moldatzen dituen idazlea: antzerkigilea
2. Pozoia hartu duen norbaiti eman behar zaiona:
3. Egokia ez dena:
4. Bibotea duena:
5. Futbola gustatzen zaiona:
6. Beldurra eragiten duena: